

HITZ BITAN

EUSKARA

‘Kili-Kili’ ume eta gaztetxoek aldizkari erabarrtua kalean da

Gorane Agirre | BILBO

Kili-Kili ume eta gaztetxoek euskarazko aldizkari eraberritua kalean da. 35 urtez paperean kaleratu den argitarapena, dagoeneko interneten ere eskuragarri dago, honako helbidean: www.kilikili.net.

Aldizkaria Jose Antonio Retolazak jarri zuen martxan 1966an. Urte hauetan guztietan aldizkaria kaleratzeko «lan eskergea» egin ostean, *Kili-kili* eskuz aldatu da, eta aurrerantzean Bizkaiko Ikastolen Elkartearen ardurapean izango da. Andres Osa da aldizkariako zuzendari berria.

Argitarapen eraberritua atzo aurkeztu zuten, Bilboko Euskalduna Jauregian egin zuten ekitaldian. Era berean, Retolaza ere omendu nahi izan zuten, urteotan egindako lanagatik.

Eraberritu egin badute ere, aldizkariak orain arteko ezauzgarri nagusiak mantentzen ditu. Osak azaldu zuenez, «9tik 14-15 urtera bitarteko gaztetxo euskaldunei zuzenduta dago, euskaraz bizitzeko aukerak eskainiko dizkion aldizkaria da».

Aldizkariak 16 orrialde ditu, eta urtean 12 ale kaleratuko dituzte, tarteka gehigarriak ere argitaratuko badituzte ere. Hasiera batean, 10.000 ale plazaratuko dituzte; erdia bizkaieraz eta beste erdia batuaz.

Kili-kili aldizkarian agertuko diren lanen egileak gaztetxoak berak izatea nahi dute bere arduradunek. Horretarako, Euskal Herrian zehar 30 talde baino gehiago eratuko dituzte.

Aldizkaria harpidetza bidez eskuratu ahal izango da, zenbait kioskotan salgai izango bada ere.



XOUSA SIMAL

Andres Osa Sakona, *Kili-kili* aldizkariako arduradun berria.

EUSKARA

France Telecom-ek herri gehiagoren izenak ezarri ditu euskaraz, bere zerrendan

France Telecom konpainiak hogeitaz herri gehiagoren izenak ezarri ditu euskaraz eta frantsesez, telefono zenbakien zerrenda liburuan. 120 herriren izenak dira dagoeneko bi hizkuntzetan daudenak; erran nahi baita hiru laurden gutxi gorabehera. Euskal Kultur Erakundeak oroitarazi du etheen izenak agerraraztea ere posible dela. Horretarako France Telecomi eskaera egin behar zaio agorrila bukatu aitzin. 600 familiak agerrarazten dute beren etxearen izena telefono zenbakien zerrendetan.

EZBEHARRAK

Bermeoko 36 urteko gizon bat hil da, Bedian, tren batek harrapatu ostean

Tren batek harrapatuta Bermeoko 36 urteko gizona bat hil zen, atzo, Bedian. Istripua eguerdiko 13:15 inguruan gertatu zen. Herrizaingo Sailaren arabera, J.E.V. trenbidean zegoen Eusko Tren konpainiako trena pasatzen ari zenean, eta ezin izan zuten hura kolpatzea ekidin. Tren zerbitzuetatik abiatu ostean, Ertzaintza eta larrialdietako zerbitzuak bertaratu ziren, baina ezin izan zuten ezer egin. Ertzaintzak, bestalde, ikerketa lanak abiatu ditu, istripua nola gertatu zen argitu ahal izateko.

OSASUNA

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko familien % 13k bakarrik egiten diote uko organoak emateari

Organo eta Ehun Emaileen Nazioarteko Eguna ospatu zen atzo. Horren harira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eman zituen datuen arabera, milioi bat lagunek 50 organo eta ehun emate izan ziren iaz EAEn; Europako eta Ipar Amerikako batez bestekoen kopuru bikoitza. Era berean, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko familien % 13k organoak emateari uko egiten diote; Espainian, berriz, kopuru hori % 20koa da. EAEn organo transplanteak egiten hasi zirenetik, 6.500dik gora lagunek hartu dute baten bat.

HIRIGINTZA

Eusko Jaurlaritzako Izartu egitarauak 25.000 milioi banatuko ditu 47 udalerrri hondaturen artean

Eusko Jaurlaritzako Izartu programak 47 udalerririk aurkeztutako 51 proiektu diruz lagunduko ditu; guztira 25.000 milioi pezeta bideratuko ditu. Udalerriek berek kudeatuko dituzte zaharberritze proiektuak eta 2005. urtera arteko epea izango dute beroriek garatzeko. Eskualdeka, Ezkerraldeak 6.400 milioi jasoko ditu, Nerbioi Goienak 2.871 milioi eta Deba Garaiak 2.626 milioi pezeta. Hiru eskualde horiek dira diru laguntza handienak jasoko dituztenak, guztira 30 proiektu egiteko.

AZPIEGITURAK

Eibar-Gasteiz autobideko Bergara hegoa eta Arrasate iparra arteko zatia onartu du Gipuzkoako Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak argi berdea eman dio Eibar-Gasteiz autobideko Bergara hegoaren eta Arrasate iparraren arteko zatia egiteari. Zati horren aurrekontua 13.686.127.921 pezetakoa da, eta 3,5 kilometrokoa da. Tartean 1,2 kilometroko eta 500 metroko tunelak egingo dituzte.

ISTRIPUAK

Txirrindulariek izan errepide istripuak gutxitu egin dira

Iaz 227 txirrindularik izan zuten zerikusia errepide istripuetan; aurreko urtean baino 56 gutxiago. Horietatik 69k zauri arinak izan zituzten, 28k zauri larriak eta lau hil egin ziren. Eusko Jaurlaritzak txirrindulariei zuzendutako Kontuz 2001 kanpainaren aurkezpenean eman zituen Jaurlaritzako Trafiko zuzendari Jesus Aranek datu horiek.

‘BEHI EROAK’

ELB sindikatuak «prefetaren bortizkeria» salatu du

ELBk prefetaren «bortizkeria» salatu zuen atzo, herenegungo manifestaldian CRSak oldartu egin zitzaizkielako. *Behi eroen* auzia dela eta prefetak «elkarriketa ukatu» du, ELBren ustez. «Gure solasaldi saioak zigortu ditu CRSak igorritz», adierazi zuten. Asteartean CRSek gas negargarriak bota zituzten, «militanteak autobidea era baketsuan uztera zihoazelarik». Kide bat atxilotu zuten, eta irailaren 13an izango du auzia.

AZOKAK

Euskal Herri osoko sagarinoa edan ahal izango da Hendaiaiko Sagarno Egunean

Sagarno Eguna iraganen da Hendaian, laugarren aldikotz, ekainaren 16an. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako sagarinoa edaten ahal da arratsaldeko 17:30etik goiti, Errepublikan plazan. Elkarrekin andana batek parte hartuko du. Hainbat elkarteren arteko elkarlan gero eta handiagoa nabarmendu zuen Txema Eigurenek antolatzaileen izenean. Sagarinoa Ipar Euskal Herrian arrakasta duen mozkin dela gehitu zuen, azken urteetan Baiona eta Hendaiaiko sagarno egunetan biltzen den jendetza ikusiz.



ANGELA MEJIAS

Hendaiaiko Sagarno Egunaren aurkezpena, atzo.